5.– Edonola ere, oinarriotan arautzen diren dirulaguntzak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako ezarritako jarraipen eta kontrolaren mende egongo dira, eta barneko araudian eta Europar Batasunekoan EBren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismorako informazio eta publizitateari, kontrolari, egiaztapenari, jarraipenari, ebaluazioari eta gainerakoari buruz ezarritako betebehar espezifikoak izango dituzte, nahitaez aplikatzekoak badira.

6.– Bereziki, administrazio emaileek datu-kategoria harmonizatuak bilduko dituzte, funtsen erabilera ikuskatu eta kontrolatzeko eta horri buruzko datu konparagarriak edukitzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak gauzatzeko neurriei dagokienez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan zehaztutakoarekin bat etorriz.

7.– Entitate onuradunek finantzaketari buruzko egiaztagiriak eta gainerako agiriak formatu elektronikoan gorde beharko dituzte jarduera egin eta bost urteko epean, edo hiru urteko epean, dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa denean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 132. artikuluan ezarritako moduan («Finantza Erregelamendua»).

8.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduaren 22.2 d) artikuluan ezarritakoa betetzeko, Administrazioak eta erregelamendu horren 22. artikuluan jasotako organo guztiek eskuratu ahal izango dute Benetako Titulartasunen Erregistroan jasotako informazioa (apirilaren 28ko 10/2010 Legearen hirugarren xedapen gehigarria, kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeari buruzkoa), edo benetako titularrei buruzko datu horiek eman ditzaketen Administrazioaren beste datu-base batzuetara sartu ahal izango dira. Era berean, sistema horien eta Europako Funtsen Sistemaren artean informazioa trukatu ahal izango da, aplikatu beharreko Europako eta Espainiako araudian jasotako xedapenen arabera.

9.– Telekomunikazio eta Azpiegitura Digitalen Estatu Idazkaritzak behar beste ikuskapen egin ahal izango ditu, araututako laguntzen baldintzak, eskakizunak eta helburuak betetzen direla egiaztatzeko.

10.– Gainera, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.4.n) artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradunek Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo finantzaketa dela-eta dirulaguntzen zertarakoa fiskalizatzeko eginkizunak dituen beste kontrol-organo batek eskatzen dien informazio guztia eman beharko dute.

Hemeretzigarrena.– Laguntzen atzeraeragina.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko uztailaren 14ko Aginduak araututako laguntza eskatu zuten jabeen erkidegoek, laguntza lortu bazuten, laguntzaren osagarria eskatu ahal izango dute, diruz laguntzeko moduko kostuen % 100era arte, eta, hala badagokio, aplikatzekoak diren zeharkako zergak ere bai, onuradunak berreskuratu edo konpentsatu ezin izan dituenean. Agindu horren bidez onetsi egiten dira eraikinetako telekomunikazio-azpiegiturak hobetzera bideratutako hainbat jarduera gauzatzeko laguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia, Europar Batasunak finantzatutako NextGeneration EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, eta garatu egiten du azaroaren 16ko 990/2021 Errege Dekretua (990/2021 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, zeinaren bitartez onartzen baita autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei zuzeneko dirulaguntzak ematea, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, eraikinetako telekomunikazio-azpiegiturak hobetzera bideratutako hainbat jarduera egiteko). Errege Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegorako laguntzen azken hartzaileei dirulaguntzak emateko autonomia-erkidegoen eta Ceuta eta Melilla hirien oinarri arautzaileek bete beharko dituzten xedapen guztiak jasotzen ditu.

Hogeigarrena.– Laguntzen publizitatea.

1.– Dirulaguntza ematen duten organoek Euskal Autonomia Erkidegoko dirulaguntzen erregistro orokorrari –Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 15. artikuluan arautuTakoari– bidali beharko diote oinarri arautzaileei eta deialdiari buruzko informazioa, bai eta dirulaguntzak emateko ebazpenak ere, erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko dirulaguntzen erregistro orokorrak, kontrol ekonomikoaren arloan eskumena duen sailaren mendekoak, EAEko administrazio publikoen publizitate- eta gardentasun-betebeharrak betetzea du helburu, bai eta estatu-laguntzen eta minimis araubideari atxikitako laguntzen arloan Europako araudiak ezarritako informazio-eskakizunak betetzea ere. Dirulaguntzen erregistro orokorrean eduki hau agertuko da gutxienez:

a) Oinarri arautzaileak eta deialdia, bideratutako zenbatekoak, helburua edo xedea, eta onuradun izan daitezkeen pertsona edo entitateen tipologia.

b) Onuradunen zerrenda, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa adierazita.

c) Emateko prozedura.

d) Itzultzeko ebazpen irmoak.

e) Dirulaguntzen erregistro orokorreko organo kudeatzaileari jakinarazten zaizkion dirulaguntzen legerian jasotako debekuren bat duten pertsonen edo entitateen identifikazio-datuak, bai eta onuradun edo entitate laguntzaile izatea eragotzita duten aldia ere.

2.– Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan argitaratuko da emandako dirulaguntzen zerrenda, zenbatekoa, finantzatutako jarduera eta pertsona edo entitate onuraduna adierazita.

3.– Argitaratuko den onuradunaren informazioak bereziki babestutako datuak baditu, datu horiek bereizi ondoren soilik argitaratuko da.

4.– Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera, dirulaguntza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren gardentasun-orrian argitaratuko da, zenbatekoa, helburua edo xedea eta onuradunak adierazita.

5.– Agindu honetan arautuTako laguntzak jasotzen dituzten jardueren aipamen guztietan (argitalpenetan, material inbentariagarrian, hedapen-jardueretan, web-orrietan eta beste batzuetan, eta, oro har, edozein hedabidetan), Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Marka Eskuliburuan (2021eko maiatzekoa, Lehendakaritza, Gorteekiko Harremanak eta Memoria Demokratikoa Ministerioko Komunikazioko Estatu Idazkaritzarena) agertzen diren baldintzak bete beharko da. Eskuliburu hori Telekomunikazio eta Azpiegitura Digitalen Estatu Idazkaritzaren webgunean egongo da eskuragarri, eta bertan Eraldaketa Digitalerako eta Funtzio Publikoko Ministerioa agertuko dira entitate finantzatzaile gisa, bai eta UNICO-Eraikinak programa honen logotipoa ere, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren eta Mekanismoaren esparruan. Hori guztia, horri buruz ezarritakoaren arabera, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18.4 artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 31. artikuluan ezarritako baldintzetan.

Aurrekoaren arabera, eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, zuzen eta ondo ikusteko moduan erakutsi beharko da EBren ikurra, «Europar Batasunak finantzatua - NextGenerationEU» dioen finantzaketa-adierazpenarekin eta, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren logotipoarekin batera (logotipoa esteka honetan dago: https://planderecuperacion.gob.es/identidad-visual).

Gainera, laguntza jasoko duten instalazioek behar bezala seinaleztatuta egon beharko dute, apartatu honetan aipatzen den eskuliburuan adierazten denaren arabera. Horretarako, onuradun diren jabeen erkidegoek, eta sektore publikoko eta toki-administrazioko entitateek DIN A3 tamainako kartel bat jarri beharko dute higiezinaren atean, ikusteko moduan, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritzak emango dien ereduaren eta formatuaren arabera –XV eranskin gisa erantsi da–. Kartelean, EBren finantzaketaren jatorria adieraziko da, dagozkion logo guztiekin, baita hauek ere: UNICO-Eraikinak programa, laguntzaren deskribapena eta xedea, diruz lagundutako jarduera, kasu bakoitzean, onuradunaren identifikazioa eta jasotako laguntzaren zenbateko osoa.

Era berean, obrak amaitu ondoren, plaka iraunkor bat jarri beharko dute eraikinean, ikusteko moduan, aurreko paragrafoan deskribatutako eduki, aipamen eta logoekin, eta gutxienez lau urtez egon beharko du.

Hogeita batgarrena.– Sexuan oinarritutako diskriminazioa.

Ezin izango zaio inolako dirulaguntzarik edo laguntzarik eman sexuan oinarrituta diskriminatzen duen jarduerari.

Zehazki, ezingo dira laguntzen onuradun izan sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoak eta juridikoak, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan.

Hogeita bigarrena.– Enpleguaren sorrera garbiko irizpideak.

Laguntza hauen bidez, ekonomia berderako trantsizioa erraztu nahi da. Ekonomia ekologikoago baterantz aurrera egiteak erronkak eta aukerak dakartza, langileak sektore batetik bestera igarotzea eta ekonomia ekoberrikuntza modu berrietan dibertsifikatzea barne.

Hogeita hirugarrena.– Datu pertsonalen babesa.

Datu pertsonalen inguruko tratamendu guztiek beteko dituzte datu pertsonalen babesari buruzko araudian xedatutako eskakizunak (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzkoa; eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa).

Tratamendu hori Tratamendu Jardueren Erregistroan dago jasota, eta «konektibitate digitala bermatzeko laguntzak» izena du, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/tratamendu-jardueren erregistro-rat/web01-a2datuba/eu/

I. ERANSKINA

LAGUNTZA ESKATZEKO INPRIMAKIA

**LAGUNTZEN AZKEN HARTZAILEA**

- Eraikinaren edo eraikin multzoaren identifikazioa

**LAGUNTZEN AZKEN HARTZAILEAREN BANKU-DATUAK**

IBAN

| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |

**ZEIN ERAIKIN EDO ERAIKIN MULTZOTARAKO ESKATZEN DIREN LAGUNTZAK**

- Eraikin kopurua, bat baino gehiago denean:
- Posta-kodea edo -kodeak:
- Katastro-erreferentziak:
- Higiezinak eraikitzen amaitu zen urtea:
- Posta-helbide osoa, jakinarazpenetarako:

**ZER JARDUERATARAKO ESKATZEN DIREN LAGUNTZAK**

| **Egin beharreko jarduerak** (zehaztu) | **Fakturen zenbateko osoa. BEZa edo Kanarietako zeharkako zerga orokorra baino lehen (€)** | | **Gehieneko laguntza (€)** | | **Eskatutako laguntza (€)** |
|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | | | Kantitatea | |
| a) | | | | | |
| b) | | | | | |
| c) | | | | | |
| **GUZTIZKOAK** | | | | | __________ **€** |

Data eta eskatzailearen sinadura

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa:

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko dira: konektibitate digitala bermatzeko laguntzak.

Arduraduna: Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Saila.

Helburua: eraikinetan telekomunikazio-azpiegiturak hobetzeko eta arrakala digitala desagerrarazteko laguntza-programak kudeatzea.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da lege-betebeharrak betetzeko. Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzeko eginkizun bat betetzeko.

Hartzaileak: Europar Batasuneko organoak; autonomia-erkidegoko beste organo batzuk; Kontuen Auzitegia edo baliokide autonomikoa; Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria; gai horretan eskumena duen ministerioa; eta Espainiako dirulaguntzen datu-basea.

Eskubideak: eskubidea duzu zure datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko; era berean, informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere badituzu (https://www.euskadi.eus/datu-babesaren-gaineko-eskubideak-egikaritu/web01-tramite/eu/).

Informazio gehigarria: gure web-orrian kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/152100-capa2-eu.shtml

Araudia: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

ID: 1521

II. ERANSKINA

UNICO-ERAIKINAK PROGRAMAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

…………………..................…….............................................................................…… jauna/andrea, ……………...........................................................…………………………………..............…………… NAN duena,………………………………lurraldeko……………………………………………hirian…………… ………………………………(PK:………),………………………………………kalea………………………… ……………………zenbakiko jabetzaren edo jabeen erkidegoa ordezkatuz

(hala badagokio, sektore publikoko entitatearen edo toki-administrazio onuradunaren ordezkariaren datuak sartu)

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (UNICO-Eraikinak programa) 15. osagaiko C15.I4 inbertsioa gauzatzean («Azpiegituren berrikuntza eta jasangarritasuna. Eraikinetako telekomunikazio-azpiegiturak kokatzeko ekipamendua hobetzea, sare-hedapena hobetzeko eta energia-kontsumoa murrizteko»),

ERANTZUKIZUNEZ ADIERAZTEN DUT:

Ordezkatzen dudan sektore publikoko entitatea edo toki-administrazioa, eta hala badagokio, jabeen erkidegoa, eta azaroaren 16ko 990/2021 Errege Dekretuaren II. eranskinean ezarritakoa betetzeko (errege-dekretu horren bidez onartzen da autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei zuzeneko dirulaguntzak ematea, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, eraikinetako telekomunikazio-azpiegiturak hobetzeko hainbat jarduera egiteko).

1) Ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako ezein egoeratan, beste dirulaguntza edo laguntza batzuk itzultzeko betebeharrik ez dutela edo betebehar hori zorrotz bete dutela, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Kondenatuta egotea laguntza edo dirulaguntza lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo batez, delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazte irmoa eragin izana kausaren batean errudun deklaratua izateagatik.

Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkaritza dutenak lege hauetan jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean egotea: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea; edo Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguak izatea, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

Ez edukitzea egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoaren arabera, erregelamendu bidez zehazten den moduan.

Erregelamendu bidez paradisu fiskaltzat jotako lurralde edo herrialde batean izatea egoitza fiskala.

Ez edukitzea egunean dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharren ordainketa, erregelamendu bidez zehazten den moduan.

Dirulaguntzak jasotzea galarazten duen zehapen-ebazpen irmoa edukitzea, bat etorrita lege honekin edo halakorik ezartzen duten beste batzuekin. Zehazki, pertsona fisikoak eta juridikoak ezingo dira dirulaguntzen onuradun izan ezta entitate laguntzaile ere, baldin eta zehapen administratibo edo penalen bat badute, sexuagatiko diskriminazioa egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik, kasuan kasuko zehapenean ezarritako aldian.

Pertsona fisiko edo juridiko publiko zein pribatua zehatuta egotea Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bideko ebazpen irmoaren bidez, edo neurri zuzentzaile egokiak ez gauzatzeagatik eta zehapena ez ordaintzeagatik.

Ez edukitzea beteta desgaitasuna duten pertsonentzat legez gorde behar den kuota, eta ez edukitzea egiaztatuta neurri alternatiboak abian jarri izana kuota hori bete dadin.

Izenpetuta:

Jauna/andrea:

Izen-abizenak eta sinadura

_______________ (e)n, 202____(e)ko _______________aren ______(e)(a)n

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa:

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko dira: konektibitate digitala bermatzeko laguntzak.

Arduraduna: Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Saila.

Helburua: eraikinetan telekomunikazio-azpiegiturak hobetzeko eta arrakala digitala desagerrarazteko laguntza-programak kudeatzea.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da lege-betebeharrak betetzeko. Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzeko eginkizun bat betetzeko.

Hartzaileak: Europar Batasuneko organoak; autonomia-erkidegoko beste organo batzuk; Kontuen Auzitegia edo baliokide autonomikoa; Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria; gai horretan eskumena duen ministerioa; eta Espainiako dirulaguntzen datu-basea.

Eskubideak: eskubidea duzu zure datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko; era berean, informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere badituzu (https://www.euskadi.eus/datu-babesaren-gaineko-eskubideak-egikaritu/web01-tramite/eu/).

Informazio gehigarria: gure web-orrian kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua.

www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/152100-capa2-eu.shtml

Araudia: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

ID: 1521

III. ERANSKINA

AURREKONTU XEHATUAREN EREDUA

ENPRESA INSTALATZAILEARI BURUZKO DATUAK

Sozietatearen izena:

IFK/IFZ:

Telefonoa:

Helbide elektronikoa:

Telekomunikazio-enpresa instalatzailearen erregistro-zk.:

Aurrekontuaren zenbakia:

Aurrekontuaren data:

ERAIKINAREN DATUAK

Bezeroa:

IFK/IFZ:

Telefonoa:

Helbide elektronikoa:

Helbidea:

Posta-kodea:

Katastroko erreferentzia:

1. KAPITULUA.– SOINUDUN IRRATI-DIFUSIOA ETA TELEBISTA DIGITALA (ITB):

1.1. partida. Hargailuak: antenak

Instalaziorako beharrezkoak diren materialen kantitateak eta motak deskribatuko dira, bai eta horien eskulana ere, xehatuta edo dagozkien obra-unitateetan sartuta (argibide gisa: antena, oinarria, dorretxoa, masta, kable ardazkidea, material txikia…)

……………………………………………………………………………………………………………………

1.1. partidaren zenbatekoa:

1.2. partida. Egokitze-ekipamendua: burualdea

Proposatutako anplifikazio mota (kanal bakarrekoa edo zentral programagarria), instalaziorako eta konfiguraziorako beharrezkoak diren materialen kantitateak eta motak, eta horien eskulana deskribatuko dira, xehatuta edo dagozkien obra-unitateetan sartuta (argibide gisa: txasisa, kanal bakarrekoak, zentral programagarria, elikatze-iturria, aurretikoa, kable ardazkidea, LTE iragazkia, material txikia...)

……………………………………………………………………………………………………………………

1.2. partidaren zenbatekoa:

1.3. partida. Banaketa-sistema eta, hala badagokio, hedatze-sistema.

Erabiliko den banaketa-sarea nondik igaroko den (barrualdetik edo fatxadatik), instalaziorako behar diren materialen kantitateak eta motak eta dagokion eskulana deskribatuko dira, xehatuta edo dagozkien obra-unitateetan sartuta (argibide gisa: deribatzaileak, banatzaileak, material txikia, kable ardazkidea...)

…………………………………………………………………………………………………………………
1.3. partidaren zenbatekoa:

…………………...........……………………………………………………………………………………
1. kapituluaren guztizkoa:

2. KAPITULUA.– BANDA ZABAL ULTRALASTERREKO SAREA

2.1. partida. Zuntz optikoko edo kable ardazkideko banda zabal ultralasterreko sarea.

Banda zabaleko sarearen eredua deskribatuko da. Sare hori zuntz optikoko sare batek, edo zuntz optikoko sare batek eta kable ardazkideko batek osa dezakete. Instalaziorako eta dagokion eskulanerako beharrezkoak diren materialen kantitateak eta motak zehaztu beharko dira, xehatuta edo dagozkien obra-unitateetan sartuta (argibide gisa: gainazaleko kaxak, egokigailuak, pigtailak, fusioak, kableak, konektoreak...).

…………………………………………………………………………………………………………………
2.1. partidaren zenbatekoa:

…………………………………………………………………………………………….......…………
2. kapituluaren guztizkoa:

3. KAPITULUA.– AZPIEGITURA ETA HODITERIA

3.1. partida. Banda zabal ultralasterreko sarearen hodiak eta interkonexio-puntua.

Banda zabal ultralasterreko sarea eta, hala badagokio, soinudun irrati-difusiokoa eta telebista digitalekoa (ITB) instalatzeko behar diren hodi guztiak eta sareko interkonexio-puntua deskribatuko dira. Instalaziorako eta dagokion eskulanerako beharrezkoak diren materialen kantitateak eta motak zehaztu beharko dira, xehatuta edo dagozkien obra-unitateetan sartuta (argibide gisa: armairuak, hodiak, erretiluak, kanala, erabiltzailearentzako sarbide-puntuak eta erantsitako obrak).

…………………………………………………………………………………………………………………
3.1. partidaren zenbatekoa:

…………………………………………………………………………………………….............………
3. kapituluaren guztizkoa:

4. KAPITULUA.– ERABILTZEN EZ DIREN EKIPAMENDUAK DESINSTALATZEA ETA KENTZEA, ETA HORIEN INGURUMEN-KUDEAKETA

4.1. partida. Erabiltzen ez diren kanpoko telekomunikazio-ekipamenduak eta -sistemak desinstalatzea eta kentzea.

Erabiltzen ez diren elementuak desinstalatzearen eta kentzearen zenbatekoak deskribatuko dira; hala nola: apaingarriak, kableak eta antenak, horiei lotutako gailu elektriko edo elektronikoak barne.

…………………………………………………………………………………………………………………
4.1. partidaren zenbatekoa:

4.2. partida. Baimendutako ekoizlearen erantzukizun hedatuko sistema kolektiboekiko akordio bidezko izapidetzea, entregaren egiaztagiriarekin.

Erretiratutako ekipamenduak Ekoizlearen Erantzukizun Hedatuko Sistema Kolektiboari entregatzearen zenbatekoaren aurrekontua egingo da, hondakin bakoitzari aplikagarri zaion indarreko araudia betez, ingurumen-kudeaketaren ziurtagiriak lortzea ere barne.

……………………………………………………………………………………………………………
4.2. partidaren zenbatekoa:

……………………………………………………………………………………………………

4. kapituluaren guztizkoa:

5. KAPITULUA.– DATUAK HARTZEA ETA AURREKONTUA, EGIAZTATZE-NEURKETAK, INSTALAZIO-BULETINA ETA TELEKOMUNIKAZIO-AZPIEGITURA KOMUNEN PROBEN PROTOKOLOA EGITEA

5.1. partida. Aurrekontua egiteko datuak hartzea

……………………………………………………………………………………………………………
5.1. partidaren zenbatekoa:

5.2. partida. Proba-protokoloa egiteko egiaztatze-neurketak

……………………………………………………………………………………………………………
5.2. partidaren zenbatekoa:

5.3. partida. Neurketa-erregistroa eta dokumentuak egitea

……………………………………………………………………………………………………………
5.3. partidaren zenbatekoa:

……………………………………………………………………………………………………………
5. kapituluaren guztizkoa:

……………………………………………………………………………………………………………
Aurrekontuko zerga-oinarria, guztira:

……………………………………………………………………………………………………………
BEZ / Kanarietako zeharkako zerga orokorra:

Aurrekontua, guztira:

Data:

Sinadura:

Enpresa instalatzailea Sinadura:

Jabeen erkidegoa

Toki entitatearen ordezkaria

Erakunde publikoaren ordezkaria

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa:

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko dira: konektibitate digitala bermatzeko laguntzak.

Arduraduna: Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Saila.

Helburua: eraikinetan telekomunikazio-azpiegiturak hobetzeko eta arrakala digitala desagerrarazteko laguntza-programak kudeatzea.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da lege-betebeharrak betetzeko. Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzeko eginkizun bat betetzeko.

Hartzaileak: Europar Batasuneko organoak; autonomia-erkidegoko beste organo batzuk; Kontuen Auzitegia edo baliokide autonomikoa; Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria; gai horretan eskumena duen ministerioa; eta Espainiako dirulaguntzen datu-basea.

Eskubideak: eskubidea duzu zure datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko; era berean, informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere badituzu (https://www.euskadi.eus/datu-babesaren-gaineko-eskubideak-egikaritu/web01-tramite/eu/).

Informazio gehigarria: gure web-orrian kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/152100-capa2-eu.shtml

Araudia: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

ID: 1521

IV. ERANSKINA

TELEKOMUNIKAZIO-AZPIEGITURA BERRITZEKO TXOSTEN TEKNIKOAREN EREDUA

ESKATZAILEA:

…………………………………………………………………….......................................…… jauna/andrea, ……………………………………………………….......................................................……………….… NAN duena,………………………………………………lurraldeko……………………………………………hirian …………………………………………(PK:………),……………………………………kalea…………… ………………………………zenbakiko jabetzaren edo jabeen erkidegoa ordezkatuz

(hala badagokio, sektore publikoko entitatearen edo toki-administrazio onuradunaren ordezkariaren datuak sartu).

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (UNICO-Eraikinak programa) 15. osagaiko C15.I4 inbertsioa gauzatzean («Azpiegituren berrikuntza eta jasangarritasuna. Eraikinetako telekomunikazio-azpiegiturak kokatzeko ekipamendua hobetzea, sare-hedapena hobetzeko eta energia-kontsumoa murrizteko»).

EGILEA:

…………...............................................…………………..............……………………………………………… jauna/andrea, …………………………………… NAN duena, telekomunikazio-azpiegitura komunen arloan eskumena duen tituluduna, ……................…………………………………………………lanbidean eta ........................................................................................................ espezialitatean lan egiteko gaitua, ……………………………………lurraldeko……………………………………………………hiriko…..… ……………………………………………………………… kalean helbidea duena.

Ondoren deskribatuko den eraikinean bertaratuta, honako txosten hau egin dut, ………(e)ko ………aren ………(e)(a)n.

Eraikinaren deskribapena:

| Ataria | Solairu kopurua | Etx./solairua | Bulegoak | Merkataritza-lokalak |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

Gaur egungo instalazioa:

1.– Soinudun irrati-difusioa eta telebista digitala (ITB):

1.1.– Hargailua (Antenak):

| Gaur egungo egoera | Berritzea |
|---|---|
| Antena banakakoak / kolektiboa | |
| Banda-zabalera egokitua | Antena-aldaketa |
| Beste antena zaharkitu batzuk | Kentzea |

Gauzatze materialerako oharrak

| |
|---|
| |

1.2.– Egokitze-ekipamendua (burualdea):

| Gaur egungo egoera | Berritzea |
|---|---|
| LTE iragazkia | Instalatzea |
| Ekipamendu zaharkituak<br>Kanal bakarrekoa zentral programagarria banda zabala | Ordeztea |

Gauzatze materialerako oharrak

| |
|---|
| |

1.3.– Banagailua eta, hala badagokio, hedagailua:

| Gaur egungo egoera | Berritzea | |
|---|---|---|
| Izar motako banaketa-sarea | Instalatzea | Konpontzea |
| Banaketa-sare mailakatua | Instalatzea | Konpontzea |
| Banaketa-sare adarkatua | Instalatzea | Konpontzea |
| Barrualdetik hodirik gabe | Hoditeria jartzea | |
| Fatxadatik hodirik gabe | Hoditeria jartzea | |

Gauzatze materialerako oharrak:

| |
|---|
| |

2.– Banda zabal ultralasterreko sarea.

2.1.– Zuntz optikoa.

| Gaur egungo egoera | Berritzea |
|---|---|
| Fatxadatik: hedapen partziala<br>Hedapen osoa<br>Hodiak jarrita | Hedapena osatzea<br>Hoditeria jartzea |
| Barrualdetik: hedapen partziala<br>Hedapen osoa<br>Hodiak jarrita | Hedapena osatzea<br>Hoditeria jartzea |
| Hedapenik gabe | Hedatzea<br>Hoditeria jartzea |
| Interkonexio-puntua | Instalatzea eta bateratzea |

Gauzatze materialerako oharrak

| |
|---|
| |

2.2.– Kable ardazkidea.

| Gaur egungo egoera | Berritzea |
|---|---|
| Fatxadatik: hedapen partziala<br>Hedapen osoa<br>Hodiak jarrita | Hedapena osatzea<br>Hoditeria jartzea |
| Barrualdetik:<br>Hedapen partziala<br>Hedapen osoa<br>Hodiak jarrita | Hedapena osatzea<br>Hoditeria jartzea |
| Hedapenik gabe | Hedatzea<br>Hoditeria jartzea |
| Interkonexio-puntua | Instalatzea eta bateratzea |

Gauzatze materialerako oharrak

| |
|---|
| |

3.– Kableak.

| Gaur egungo egoera | Berritzea |
|---|---|
| CPR markarekin<br><br>ITB banda zabala<br><br>Zuntza ardazkidea | |
| CPR Markarik gabe<br><br>ITB banda zabala<br><br>zuntza ardazkidea | Ordeztea<br><br>ITB banda zabala<br><br>Zuntza ardazkidea |

Gauzatze materialerako oharrak

| |
|---|
| |

4.– Gaur egungo instalazioen segurtasuna

| Gaur egungo egoera | Berritzea |
|---|---|
| Teilaturako sarbidea:<br>Eremu komunetik<br>Segurua | Eremu komunetik sartzea aurreikustea<br><br>Sarbidea ziurtatzea |

| Gaur egungo egoera | Berritzea |
|---|---|
| Hargailuak ainguratzea:<br>(Oinarria, dorrea, masta)<br>Lasaiera ainguraketetan<br>Ainguraketen oxidazioa<br>Antenen gehiegizko karga | Lasaierak kentzea<br>Ainguraketak ordeztea<br>Ainguraketak edo antenak ordeztea |
| Lur-konexioa<br>badago<br>behar bezala konektatua | Instalatzea<br>Konektatzea |

Gauzatze materialerako oharrak

| |
|---|
| |

Teknikari eskudunak egiaztatu du telekomunikazio- azpiegitura komunean ez dagoela pertsonen osasunerako eta osotasunerako elementu arriskutsurik

5.– Proposatutako diruz laguntzeko moduko jarduerak gauzatu ondoren, hala badagokio, zaharkitutako eta erabiltzen ez diren elementuak kentzeko jarduera-gomendioak eta kontuan hartu beharreko alderdiak.

| |
|---|
| |

6.– Beste ohar batzuk

| |
|---|
| |

7.– Berritzeko proposamena:

Gaur egungo egoera ikusita (arestian azaldutakoa), telekomunikazio-azpiegitura honek azaroaren 16ko 990/2021 Errege Dekretuan eta ________________________________________ laguntza-deialdian adierazitako betebeharrak betetzen ditu, hura egokitzeko dirulaguntza jaso ahal izateko, eta, jabetzaren legezko ordezkaritzarekin batera, diruz lagundu daitezkeen hiru kasuen artean honako hau hautatzen da (ezabatu bidezkoa ez dena):

a) Osoa, _______________ (kop.) etxebizitza dituen eraikinean.

b) Partziala, _________________ (kop.) etxebizitza dituen eraikinean.

c) Banda zabala bakarrik, ____________ (kop.) etxebizitza dituen eraikinean.

Egin beharreko obrek aurreko puntuetan adierazitako berritzearen xede diren alderdi guztiak jasotzen dituzte.

Xede horretarako egin behar diren lanak ezin izango dira inola ere hasi, aurretik dagokion berritze-proiektu teknikoa idatzi ez bada.

8.– Aurrekontuan sartutako jardueren zenbateko osoa (BEZ-a edo kanarietako zeharkako zerga orokorra baino lehen).

| Kontzeptua | Zenbatekoa |
|---|---|
| Lanbide-ordainsariak<br>Berritze Txosten Teknikoa, proiektu teknikoa, obra-zuzendaritza eta instalazioaren ziurtagiria egitea; hala badagokio, egiaztapena/oniritzia barne.<br>Dokumentuen kudeaketa. | ……….………… |
| Gauzatze materiala eta horrekin lotutako dokumentazioa<br>Instalazioa gauzatzea; hala badagokio, hondakinen desinstalazioa eta ingurumen-kudeaketa; egiaztapen-neurriak; buletina eta proben protokoloa egitea, erantsitako aurrekontuaren arabera. | ………………… |
| Aurrekontuaren zenbateko osoa, bez-a edo kanarietako zeharkako zerga orokorra baino lehen | …………………. |
| Autonomia erkidegoak aplikatutako ehunekoa kontuan hartuta eska daitekeen gehieneko laguntza (% 100) | ……….......…… |

…………. (e)n ………(e)ko ………aren ………(e)(a)n

Txostenaren egilea jabeen erkidegoko presidentea edo legezko ordezkaria/sektore publikoko entitatearen edo toki-entitate onuradunaren ordezkaria

Izpta.: …………………… Izpta.: ……………………

NAN: NAN: ………………

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa:

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko dira: konektibitate digitala bermatzeko laguntzak.

Arduraduna: Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Saila.

Helburua: eraikinetan telekomunikazio-azpiegiturak hobetzeko eta arrakala digitala desagerrarazteko laguntza-programak kudeatzea.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da lege-betebeharrak betetzeko. Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzeko eginkizun bat betetzeko.

Hartzaileak: Europar Batasuneko organoak; autonomia-erkidegoko beste organo batzuk; Kontuen Auzitegia edo baliokide autonomikoa; Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria; gai horretan eskumena duen ministerioa; eta Espainiako dirulaguntzen datu-basea.

Eskubideak: eskubidea duzu zure datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko; era berean, informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere badituzu (https://www.euskadi.eus/datu-babesaren-gaineko-eskubideak-egikaritu/web01-tramite/eu/).

Informazio gehigarria: gure web-orrian kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/152100-capa2-eu.shtml

Araudia: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

ID: 1521

V. ERANSKINA

BENETAKO TITULARTASUNAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

……………………………………………….............................………………...…. jauna/andrea, ………………………………………...........................................................................................NAN duena,………………………………………………lurraldeko…………………………………………hirian ……………………………………………(PK:………),……………………………………kalea……...…… …………………………………zenbakiko jabetzaren edo jabeen erkidegoa ordezkatuz

(hala badagokio, sektore publikoko entitatearen edo toki-administrazio onuradunaren ordezkariaren datuak sartu).

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (UNICO-Eraikinak programa) 15. osagaiko C15.I4 inbertsioa gauzatzean («Azpiegituren berrikuntza eta jasangarritasuna. Eraikinetako telekomunikazio-azpiegiturak kokatzeko ekipamendua hobetzea, sare-hedapena hobetzeko eta energia-kontsumoa murrizteko»),

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

Lehenengoa.– Irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduko 8. artikuluan xedatutakoa ezagutzen duela, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 EB Erregelamenduaren 22.d) artikuluan eskatzen dena betetzeko helburuarekin. Artikulu horren arabera, funtsen azken hartzailea identifikatzeko informazioa eman behar da: funtsak jasoko dituenaren izen-abizenak eta benetako titularren jaiotza-data, betiere Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluko 6. puntuak benetako titular gisa zer definitzen duen kontuan hartuta.

Bigarrena.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluko 6. puntuan adierazitakoaren arabera, honako hauek direla benetako titularrak (hau da, azken buruan jabetza edo bezeroaren kontrola duten pertsona fisikoak edo transakzio edo jarduera baten ardura duten pertsona fisikoak):

| **Benetako titulartasuna** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Bazkidearen edo akziodunaren izen-abizenak** | **NAN/AIZ/Pasaportea** | **Nazionalitatea edo egoitza soziala** | **Jaioteguna** | **Partaidetza (%)** |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

Hirugarrena.– Badakiela ezen, eskatuz gero, Eusko Jaurlaritzako entitate betearazleari entregatu beharko diola benetako titularrak nor diren egiaztatzen duen notario-aktaren kopia, azken adjudikazioduna edo hartzailea merkataritza-sozietate bat bada, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan eta irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan ezarritakoaren arabera.

______________ (e)n, 20____ko ______________ren ______(e)(a)n

Izenpetuta:

Kargua:

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa:

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko dira: konektibitate digitala bermatzeko laguntzak.

Arduraduna: Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Saila.

Helburua: eraikinetan telekomunikazio-azpiegiturak hobetzeko eta arrakala digitala desagerrarazteko laguntza-programak kudeatzea.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da lege-betebeharrak betetzeko. Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzeko eginkizun bat betetzeko.

Hartzaileak: Europar Batasuneko organoak; autonomia-erkidegoko beste organo batzuk; Kontuen Auzitegia edo baliokide autonomikoa; Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria; gai horretan eskumena duen ministerioa; eta Espainiako dirulaguntzen datu-basea.

Eskubideak: eskubidea duzu zure datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko; era berean, informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere badituzu (https://www.euskadi.eus/datu-babesaren-gaineko-eskubideak-egikaritu/web01-tramite/eu/).

Informazio gehigarria: gure web-orrian kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/152100-capa2-eu.shtml

Araudia: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

ID: 1521

VI. ERANSKINA

JARDUERA EKONOMIKOETAN ARITZEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

……………………………………………………........................................……………… jauna/andrea, ………..........................................................................…………………………………………………… NAN duena,…………………………………………….lurraldeko……………………………………….hirian ……………………………………………(PK:…....……),…………………………………….kalea………… …………………………………zenbakiko jabetzaren edo jabeen erkidegoa ordezkatuz

(hala badagokio, sektore publikoko entitatearen edo toki-administrazio onuradunaren ordezkariaren datuak sartu).

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (UNICO-Eraikinak programa) 15. osagaiko C15.I4 inbertsioa gauzatzean («Azpiegituren berrikuntza eta jasangarritasuna. Eraikinetako telekomunikazio-azpiegiturak kokatzeko ekipamendua hobetzea, sare-hedapena hobetzeko eta energia-kontsumoa murrizteko»),

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

☐ Irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, laguntza jasotzen duen entitateak jarduera ekonomiko bat egiten duela. Hori egiaztatzeko, Zerga Administrazioko Estatu Agentziako enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldan edo zerga-administrazio foralaren errolda baliokidean inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu du (erantzukizunpeko adierazpen honekin batera doa). Ziurtagiri horretan, laguntza eskatu zen egunean benetan gauzatzen den jarduera ekonomikoa jasotzen da.

☐ Entitate onuradunak EZ duela inolako jarduera ekonomikorik egiten, eta hori adierazten du erantzukizunpeko adierazpen hau sinatuz. _______________ (e)n, 20____ko _______________ren ______(e)(a)n

_______________ (e)n, 20____ko _______________ren ______(e)(a)n

Izenpetuta:

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa:

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko dira: konektibitate digitala bermatzeko laguntzak.

Arduraduna: Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Saila.

Helburua: eraikinetan telekomunikazio-azpiegiturak hobetzeko eta arrakala digitala desagerrarazteko laguntza-programak kudeatzea.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da lege-betebeharrak betetzeko. Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzeko eginkizun bat betetzeko.

Hartzaileak: Europar Batasuneko organoak; autonomia-erkidegoko beste organo batzuk; Kontuen Auzitegia edo baliokide autonomikoa; Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria; gai horretan eskumena duen ministerioa; eta Espainiako dirulaguntzen datu-basea.

Eskubideak: eskubidea duzu zure datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko; era berean, informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere badituzu

(https://www.euskadi.eus/datu-babesaren-gaineko-eskubideak-egikaritu/web01-tramite/eu/).

Informazio gehigarria: gure web-orrian kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/152100-capa2-eu.shtml

Araudia: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

ID: 1521

VII. ERANSKINA

INGURUMENARI KALTE NABARMENIK EZ ERAGITEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA (DNSH PRINTZIPIOA)

…………………..............……………………………………….................……… jauna/andrea, ………………….........................................................................………………………………………… NAN duena,………………………………………………lurraldeko………….…………………………..........……… hirian…………………………………………(PK:………),……………………………………kalea…..… ………………….........……………………zenbakiko jabetzaren edo jabeen erkidegoa ordezkatuz.

(hala badagokio, sektore publikoko entitatearen edo toki-administrazio onuradunaren ordezkariaren datuak sartu).

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (UNICO-Eraikinak programa) 15. osagaiko C15.I4 inbertsioa gauzatzean («Azpiegituren berrikuntza eta jasangarritasuna. Eraikinetako telekomunikazio-azpiegiturak kokatzeko ekipamendua hobetzea, sare-hedapena hobetzeko eta energia-kontsumoa murrizteko»),

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

Lehenengoa.– Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren edukia kontuan hartuta, ordezkatzen duen erakundeak konpromisoa hartzen duela ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatzeko eta ingurumenean inpaktu negatibo nabarmenak saihesteko («DNSH», ingelesezko «Do No Significant Harm» siglengatik) plan horren esparruan gauzatutako jarduerak gauzatzean.

Bigarrena.– Badakiela onuradunek, proiektuaren diseinuaren eta betearazpenaren fase guztietan, jarraian zerrendatzen diren berariazko baldintzak betetzen dituztela bermatuko duten mekanismoak aurreikusi behar dituela. Baldintza horiek lotuta daude Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko ekainaren 18ko 2020/852 Erregelamenduaren 17. artikuluan jasotako ingurumen-helburu hauekin (2020/852 Erregelamendua, inbertsio jasangarriak ahalbidetzeko esparru bat ezartzeari buruzkoa eta finantza-zerbitzuen sektorean jasangarritasunari buruzko informazioa zabaltzeari buruzko 2019ko azaroaren 27ko 2019/2088 (EB) Erregelamendua aldatzen duena):

| Ingurumen-helburua | Berariazko baldintza |
|---|---|
| Klima-aldaketa arintzea.<br>Neurriak berotegi-efektuko gasen emisio handiak sortuko dituela espero da? | IT azpiegiturak instalatzeko, aplikatu beharrekoan, kontuan hartuko dira banda zabaleko ekipamenduen energia-kontsumoari buruzko Europako Jokabide Kodearen bertsio berrieneko gomendioak eta jardunbide onenak, edo ekipamendu eta instalazioetan energia-efizientziari buruzko jardunbide garrantzitsuak ezartzeko ahalik eta ahaleginik handiena egin dela egiaztatzen duen proiektu teknikoa. |
| Klima-aldaketara egokitzea.<br>Espero da neurriak egungo eta etorkizunerako aurreikusitako klima-egoeran kontrako efektuak ekarriko dituela instalazio eta ekipamendurako, pertsonentzako, naturarako edo aktiboetarako? | Eraikinetan telekomunikazio-azpiegitura komunak instalatzeari dagokionez, banda zabal ultralasterra eta, hala badagokio, soinudun irrati-difusioa eta telebista digitalera egokitutako telekomunikazio-azpiegiturak hedatzeko proiektuetarako, neurri horri legokiokeen klima-arrisku fisiko gisa identifikatu da uholde-arriskua (euri-urak eta, hala badagokio, ibaietakoak edo kostakoak).<br>Klima-arrisku horretarako, diseinuaren eta eraikuntzaren unean, arrisku hori murrizten duten egokitzapen-soluzioak txertatuko dira, eta lanak hasi aurretik aplikatuko dira. |

| Ingurumen-helburua | Berariazko baldintza |
|---|---|
